


FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa baten zer egin garrantzitsuenak ez dira bakarrik bezeroenganakoak izaten; noski, azken hauek garrantzitsuak izaten dira, baina barnealdean beste zenbait gauza gehiago daude aztertzeko.

Funtsean, hauek dira aztertu beharreko zenbait:

- Ekoizpena (zerbitzuaren banaketa, organizazioa eta modua).
- Arazoak konpontzea (emandako zerbitzuaren erantzukizuna demostratzea, bezeroa “zaintzea” haien beharrak entzutearen bidez).
- Plataforma edo sareko jarduerak sortu zein bultzatzea, bezero ohiak zein berriak enpresak eskainitako berriez informatzeko zein kontaktua mantentzeko.



Aipatutako jarduera guztiak enpresa berak sortuak eta kudeatuak izango dira, haiek baino inork gehiago ez omen dakielako haien produktu zein zerbitzuen inguruan informazio gehiagorik. Funtsezko jardueren garrantzia guztiz beharrezkoa eta garrantzitsua da zaindua izan nahi den enpresan.